

## KODE DEONTOLOGIKOA

### I. TITULUA. Printzipio orokorrak

1. artikulua.- Podologiaren deontologia lanbide jokabidea inspiratu, gidatu eta zuzendu behar duten printzipio eta arau etikoen multzoa da.

---

2. artikulua.- Gaixotasuna sendatzeko eta/edo prebenitzeko, pairamen bat arintzeko edo osasunaren sustapen integrala egiteko, legez gaitutako podologiako profesional batek, asistentzia, irakaskuntza, ikerketa, kudeaketa eta/edo administrazioaren arloetan, peritu-arloan edo beste arlo batzuetan gauzatzen duen jarduera zilegi oro hartzen da podologia ekintzatzat. Ekintza horren barnean ekintza diagnostikoak, terapeutikoak edo sufrimendua arintzekoak sartzen dira, baita osasuna babestea eta sustatzea ere, zuzeneko eta zeharkako bitartekoak erabiliz.

---

3. artikulua.- Kode deontologiko hau nahitaez bete behar dute podologian aritzen diren elkargokide guztiek beren lanbidean, egiten duten modalitatea kontuan izan gabe. Podologoaren Elkargoetan erregistratuta dauden Sozietate Profesionalek ere bete behar dute.

Kode honetan jasotako arauen bat ez betetzea diziplinazko falta da. Falta hori dagokion Deontologia Batzordeak aztertuko du eta txosten bat egingo du indarrean dagoen legezko arauaren arabera jokatzeko.

---

4. artikulua.- Podologian aritzean, profesionalak kontzientzia eta arreta berarekin tratatu beharko ditu paziente guztiak, jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialengatik bereizketarik egin gabe.

---

5. artikulua.- Podologoak gizartearen zerbitzura daude, eta, beraz, etika eta duintasuna gorde behar dizkiete, bai maila pertsonalean, bai profesionalean gure kolektiboari, osasun arloko gainerako lanbideei eta pazienteei.

---

6. artikulua.- Jarduera Kontseiluan erregistratutako Sozietate Profesional baten bitartez gauzatzen duten podologiako profesionalak egiten dituzten ekintzen gaineko erantzukizun deontologikoa sozietateak izango du, profesional horrek, indibidualki, duen erantzukizuna alde batera utzi gabe.

---

7. artikulua.- Podologiari buruzko etengabeko prestakuntza kolektibo osoaren betebeharrak etikoa, eskubidea eta erantzukizuna da.

---

8. artikulua.- Podologoaren Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren ardura izango da lanbideko kideek deontologia kode hau betetzen eta sustatzen duten zaintzea.

---



## II. TITULUA. Jardun profesionalari buruz

---

### 9. artikulua.- Podologoak bere pazienteekin duen harremana

---

1. Podologia ez da zientzia zehatza eta pazientearen alderdi pertsonal askok dute eragina; beraz, profesionalak zehaztasun zientifikoz jardungo du, ez du emaitzei buruzko promesik egingo eta ebidentzia zientifikoetan oinarritutako tratamenduak eskainiko ditu.
2. Podologian aritzen direnek patologia horietan egin behar diren proba diagnostikoak eskatu beharko dituzte eta beharrezkoak ez direnak edo “defentsarako medikuntza” deitzen zaiona dela eta egin direnak ez dituzte eskatuko.
3. Asistentzia podologiko segurua emateko, konfiantza osoko harremana izan behar da profesionalaren eta pazientearen artean. Horrek berekin dakar pazienteak profesionala aukeratzeko edo aldatzeko duen eskubidea errespetatzea, eta eskubide hori erabiltzea erraztu behar da.
4. Jarduera gauzatzean, profesionalak pazientearen edo haren legezko ordezkarien ideiak errespetatuko ditu eta ez dizkie bereak inposatuko.
5. Podologian aritzen direnak zuzenak izango dira jarduketa guztietan eta pazientearen intimitatea zehazki errespetatuko dute.
6. Profesionalak paziente bat artatzea onartzen duenean, pazienteari arreta jarraitua ziurtatzeko konpromisoa hartzen du, baina arreta hori bertan behera utzi ahal izango dute, baldin eta profesionalarekiko behar den konfiantzarik ez dagoela uste badute. Podologoak horren berri emango dio pazienteari edo haren legezko ordezkariari, eta prozesu asistentzialez beste profesional bat arduratzea erraztuko du, prozesuaren jarraitutasuna bermatzeko beharrezkoa den informazioa eta dokumentazio klinikoa emanaz.
7. Podologian aritzen direnek ez dute asistentzia emateko betebeharririk izango, esku-hartze batean, behar bezala informatutako pazienteak ez badu onartzen profesionalak beharrezkotzat jotzen duen miaketa edo tratamendu bat egitea. Edo pazienteak profesionalari prozedura bat egitea eskatzen badiu, eta arrazoi zientifikoak edo etikoak direla medio, profesionalaren ustez prozedura hori desegokia edo onartezina bada.
8. Podologian aritzen direnek ez diote inoiz kalterik egingo nahita pazienteari, ez dute arduragabeki artatuko eta ez dute justifikaziorik gabeko atzerapenik izango pazienteari asistentzia emateko garaian.
9. Podologiako kolektiboak jakin behar du zer betebeharrak profesional dituen komunitatearekin. Ahaleginak egin behar dituzte podologoaren lana ahalik eta eraginkorrena izateko eta gizarteak eskura jartzen dizkien bitartekoei etekin hobereana

ateratzeko.

10. Podologiako profesionalak beren jokabidea zaindu behar dute pazientearen konfiantza osoa lortzeko, eta, horrela, lanbideari duintasuna ematen laguntzeko.
11. Podologoek beren jarduketan eta akatsen ondorio negatiboak onartu behar dituzte, eta azalpen argia, garbia, eraikitzailea eta egokia eman behar dute.

#### 10. artikulua.- Pazienteak informazioa jasotzeko duen eskubidea

1. Podologiako profesionalak, bere jardueran aritzen denean, argi eta garbi eta pazienteak ulertzeko moduan jakinarazi beharko du edozein esku-hartzetan zer tratamendu aukera eta zer arrisku orokor eta espezifiko dauden, aukeratutako tratamendua autonomia osoz erabaki dezan.
2. Informazioa ahozkoa edo idatzizkoa izango da, dauden arriskuen edo ematen diren aginduen konplexutasunaren arabera. Dena den, pazienteak eskubidea du informazio idatzia eskatzeko tratamenduaren edozein unetan, arriskua duten prozedurak edo prozedura konplexuak egiten dituztenean profesionalak baimen informatua idatziz eskatzeko duen betebeharra alde batera utzita.
3. Tratamendua bukatzen denean, pazienteak alta edo asistentzia txostena jasotzeko eskubidea du. Txosten horretan diagnostikoa adieraziko da eta egindako tratamendua laburbilduko da.

#### 11. artikulua.- Sekretu profesionala

1. Lanbidean aritzeak berezkoa du sekretu profesionala eta pazientearen eskubidea da bere segurtasunerako; profesional guztiek gorde behar dute sekretu hori, edozein modalitatetan dihardutela ere. Sekretua da, halaber, pazienteak bien arteko harreman profesionalean emandako informazio klinikoa edo pertsonala.
2. Podologian taldean aritzen direnean, taldekide bakoitza da sekretu profesionalaren erantzulea, eta bere laguntzaileei jakinaraziko die erabateko diskrezioa duela eta zorrotz betetzen duela.
3. Pazientearen heriotzak ez ditu podologian aritzen direnak sekretu profesionala izateko betebeharretik aske utziko.
4. Sekretu profesionala ez da urratuko peritu gisa jarduten denean eta pazienteak edo haren legezko ordezkariak txosten bat eskatzen duenean.
5. Podologian dihardutenek sekretua ezagutzera eman ahal izango dute, diskrezioz eta muga zuzen eta murriztuetan, honako kasu hauetan:
  - Justizia Auzitegien aurrean. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa izanez gero, aholkularitza eskatu beharko dio Elkargo Profesionalari.

- Paziente baten sekretua gordetzeagatik kaltetua izan denean, eta kaltearen borondatezko egilea pazientea denean.
- Elkargoak eskatzen dionean edo diziplina arloan lekukotasuna ematera deitzen dutenean.

## 12. artikulua.- Historia klinikoa

---

1. Historia klinikoa azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legearen arabera arautzen da. Lege horren bidez pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dira. Podologoak, profesional sanitarioa denez, Lege hori bete eta errespetatu egin behar du.
2. Podologoren batek bere jarduera uzten badu, legez ezarritako denboran gorde beharko ditu fitxategi fisikoak edo birtualak edo dagokion erkidegoko Podologoaren Elkargo Profesionalean entregatu beharko ditu, legez derrigorrezkoa den denboran gorde ditzaten, eta ez dizkio beste podologo bati emango pazienteak aldeztatik idatzizko baimenik eman gabe. Fitxategiak suntsitu behar izanez gero, isilpeko dokumentaziorako prozedurak beteko dira indarreko araudiaren arabera, Dokumentazio Klinikoko Batzorde Nagusiaren irizpideak betez.

## 13. artikulua.- Tratamenduari buruzko eskubideak

---

1. Ezagutza profesionala erabili behar da pazientea sendatzen saiatzeko, bizi kalitate handiagoa lortzeko eta berehalako edo etorkizuneko arriskuak prebenitzeko.
2. Betebehar bat da beti eguneratuta egotea jardun profesionala betetzearen inguruko etengabeko aurrerapen zientifiko eta teknikoari buruz, helburu bakar batekin: pazienteei kalitatezko asistentzia bermatzea.
3. Podologian dihardutenek pazienteen informazioa lortu behar dute beste espezialista batzuek jarritako tratamendu farmakologikoei buruz (horrelakorik izanez gero), tratamendu horiek podologiako profesionalak agindutako prestakinekin eduki ditzaketen interakzioak edo kontraindikazioak aztertzeko; horretarako, lehen mailako asistentziako medikuarekin edo gaixoaren eboluzioa eta tratamendu horien aurkako balizko erreakzioak zaintzen dituzten beste mediku batzuekin koordinatu behar dute.
4. Podologian dihardutenek oinean gaixotasun sistemikoen seinaleak eta/edo sintomak ikusten dituztenean, pazientea espezialistarengana edo lehen mailako asistentziako medikurengana bidali beharko dute, eta harekin harremanetan jarri, pazienteari asistentzia integrala emateko.

## 14. artikulua.- Publizitatea

---

1. Zerbitzu profesionalen publizitatea askatasunez egin ahal izango da, gaiari, lehiaren



defentsari, lehia desleialari eta podologiaren arau deontologikoei buruz indarrean dagoen legeria erabat errespetatuz.

2. Publizitateak beti errespetatuko ditu independentzia, askatasuna, duintasuna eta integritatea lanbidearen funtsezko printzipio eta balio goren gisa, baita sekretu profesionala ere. Horrez gain, publizitateak objektiboa, egiazkoa eta duina izan beharko du, bai edukiari dagokionez, bai erabilitako bitartekoei dagokienez.

3. Publizitatearen legezko ordezkariak identifikatuta agertu beharko du. Zentroaren osasun-erregistroaren zenbakia, publizitatea egiten zaion zentroaren identifikazioa eta/edo elkargokide zenbakia (norberaren izenean egiten denean) adieraziko dira. Ezin izango dira Kontseiluaren edo Elkargo Profesionalen logotipoak erabili haien baimenik gabe.

4. Publizitateak ezin izango du ekarri:

a) Sekretu profesionalak babestutako ekintzak, datuak edo egoerak ezagutzera ematea zuzenean edo zeharka.

b) Erakundeen edo elkargoen ikurrak eta antzekoak izateagatik nahasmena sor dezaketenak erabiltzea, salbu eta estatutu partikularretan kontrakoa xedatzen bada, eta lanbide egoera bereizteko onartzen diren ikurrak erabiltzea.

c) Podologian aritzearekin bateraezinak diren jarduerak aipatzea.

d) Itxaropen faltsuak sortzea.

e) Kontzeptu funsgabeak zabaltzea.

f) Publizitatea egiten zaion profesionalaren jardueraren mende soilik ez dauden emaitzak lortzea sustatzea.

g) Indarrean dagoen legeriak terminologikoki baimentzen ez duen titulu akademiko edo profesional bat aipatzea, ezta gai jakin batzuei buruzko espezialitateak aipatzea ere, baldin eta espezialitate horiek titulu ofizial akademiko edo profesionalen bidez bermatuta ez badaude, edo titulu horiek lortzeko legez homologatutako espezializazio profesionaleko prestakuntza ikastaroak gainditu behar badira edo espezializazioa egiaztatzen duen jardun profesional luzea izan behar bada.

h) Konparazioak egitea podologiako beste profesional batzuekin publizitate korporatiborako Legean ezarritako baldintzak bete gabe, edo beren jarduketa zehatzekin, edo autogorespeneko baieztapen funsgabeekin.

i) Eta, oro har, pertsonen eta podologiaren duintasunaren aurkako bitartekoak edo edukiak erabiltzea, baita lanbidearen arau deontologikoen aurkako publizitatea erabiltzea ere.

5. Publizitatean ez da sendaketa arrakastatsurik aipatu beharko.

6. Kanpoko publizitate plaketako testuetan, podologoak bere espezialitatea edo

espezialitateak (ortopodologia, oinaren kirurgia, gaixotasunak eta oinen deformazioa) zehaztera mugatuko du publizitatea.

7. Ezin izango da publizitate ezkuturik egin, eta ondo ikusten den toki batean eta behar bezala ulertzeko moduan adieraziko da publizitate edukia dela.
8. Podologian Elkargo baten izenean aritzen direnek komunikabideetan egiten dizkieten elkarrizketetan podologia orokorrean eta podologoak orokorrean aipatuko dituzte eta ez dituzte beren jarduera pertsonalak aipatuko.

### 15. artikulua.- Leialtasun profesionala

---

1. Podologia lehia askearen erregimenean gauzatzea bateragarria izango da, nolana ere, lanbidearen arau deontologikoak zorrotz betetzearekin.
2. Bezeroen erakartze desleiala debekatuta dago.
3. Lehia leiala babesten duten arauak (estatukoak eta autonomikoak) urratzen dituzten ekintza guztiak leialtasun profesionalaren aurkakoak dira, eta bereziki honako hauek:
  - a. Publizitateari buruzko Lege Orokorraren xedapenen aurkakoak diren zuzeneko eta zeharkako publizitate prozedurak eta Kode honetan eta gainerako arau osagarrietan publizitateari buruz jasotzen diren arau espezifikoen aurkakoak direnak erabiltzea.
  - b. Bezeroak zuzenean edo zeharka erakartzea, baldin eta jardun hori pertsonen edo Podologiaren duintasunaren kontrako eraso bada.
  - c. Hirugarrenak bitarteko gisa erabiltzea betebehar deontologikoak saihesteko. Hirugarren batek egindako publizitateak mesede egiten diona hartuko da arduraduntzat, kontrakoa frogatzen bada izan ezik.
  - d. Doakoak ez izan arren, itxuraz doakoak diren eta lanbide harremanean dagoen asimetria dela medio, kontsumitzaileengan nahasketa sor dezaketen zerbitzuak eskaintzea.

### 16. artikulua.- Bateriaezintasunak

---

Jarduera publikoak egiteko ezarritako bateriaezintasunak alde batera utzi gabe, Podologiaren jardun klinikoa bateriaezina da sendagaiak eta produktu sanitarioak fabrikatzearen, lantzearen, banatzearen, bitarteko izatearen eta merkaturatzearen ondoriozko zuzeneko edozein interes ekonomikorekin, Sendagaien eta osasun produktuen bermeen eta erabilera zentzuzkoaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.5 eta 19. artikuluen arabera, neurrirra egindako osasun produktuak egokitzeko eta fabrikatzeko berariazko baimenak izan ezik.

Ezin izango dute kontraprestaziorik kobratu pazienteak hartzeagatik eta



beste espezialitate batzuetara bideratzeagatik edo neurrira egindako sendagaiak edo osasun produktuak agintzeagatik.

## 17. artikulua.- Ordainsari profesionalak eta lehia desleiala

---

1. Ez dira podologian aritzen direnen jarduketa etikoak, ezta deontologia profesionalaren araberakoak ere honako hauek zuzenean edo zeharka dakartzaten jarduketak:
  - Pazienteari zuzenean saltzea produktuak, sendagaiak edo aparatuak, profesionalak egindako azterketa klinikoaren eta diagnostikoaren aurreko tratamendu alternatibo gisa pazientearen oinari aparatu ortopodologikoak egokitzea edo horrelako aparatuak egitea izan ezik.
  - Medikamentuak, produktu ortopedikoak eta proba diagnostikoak agintzea, baita pazienteak lankideengana edo profesionalengana bideratzea ere pertsona edo erakunde onuradunek edozein motatako ordainak jasotzearen truke.
  - Profesionalak edozein motatako ordainsariak ordaintzea pazienteak lortzeko.

Azken batean, podologiako profesional gisa duen maila erabiliz, jardunbide profesional egokitik haratago doan abusua edo iruzurra eragin dezakeen edozein jarduera, onura ekonomikoak edo beste mota batekoak lortzeko profesionalarentzat berarentzat edo hirugarren batentzat.

2. Podologian aritzen direnek askatasun osoa dute beren ordainsari profesionalak jartzeko, betiere pazientearen aldeko iritzi klinikoaren gaineko independentziatik abiatuta eta ordainsari horiek profesionalak gauzatzen duen asistentzia jardueraren konplexutasunaren arabera jartzen badira, lehia desleiala saihestuz, nolana ere.
3. Tratamendua aplikatu aurretik, tratamendu horren kostuaren berri eman behar zaio pazienteari.

## 18. artikulua.- Arreta podologikoaren kalitatea

---

1. Podologian aritzen direnek kalitatezko giza arreta eman behar dute, eskura dituzten baliabide guztiak erabiliko dituzte eta lanbidea behar bezala betetzeaz arduratuko dira une oro.
2. Podologian aritzen direnek askatasun profesionala eta baldintza teknikoak izan behar dituzte independentziaz eta kalitate bermeaz jardun ahal izateko. Baldintza horiek betetzen ez badira, horren berri eman beharko zaie asistentzia kudeatzen duen organismoari eta pazienteari, eta erantzunik jasotzen ez bada, Elkargo Profesionalari jakinaraziko zaio.
3. Podologian aritzea ezagutza zientifikoan oinarritutako zerbitzu bat da eta zerbitzu

hori mantentzea eta eguneratzea podologiako profesionalaren betebeharrak deontologiko indibiduala da, lanbidea arautzen esku hartzen duten erakunde eta agintari guztien erantzukizuna eta konpromiso etikoa.

#### 4. Jardun hauek ez dira etikoak:

- Berritsukerian oinarrituta dauden jardunak, oinarri zientifikorik ez dutenak.
- Pazienteari edo horren ahaideei ezinezkoak diren sendabideak agintzea eta emaitzak bermatzea.
- Prozedura engainagarriak edo behar adina probatuta ez daudenak eta itxurazko edo gezurrezko tratamenduak egitea.
- Zientifikoki egiaztatuta ez dauden teknikak eta beharrezkoak ez diren tratamenduak erabiltzea.
- Aldez aurretik ezarritako helburu batzuk betetzei dagokionez ordainsari bat onartzea asistentziaren kalitatearen kaltetan edo helburu horien ondorioz asistentziaren kalitateak okerrera egiten badu.

5. Ez da deontologikoa dagokion titulazioa ez duenari edo elkargokidetuta ez dagoenari edo lanbidean aritzeko beharrezkoak diren legezko baldintzak betetzen ez dituenari kontsultategia erabiltzen uztea, edo pertsona hori nolabait estaltzea. Egoera horren ondoriozko gertaerez zentroaren titularraren arduratuko da.

6. Preskripzioa ekintza podologikoaren ondorioa da; horregatik, podologo profesional sanitarioak hartuko du errezetaren ardura. Errezetaren edukiren bat aldatzen bada eta horrek tratamenduan eragina badu, tratamenduaren erantzukizun deontologikoa bertan behera geratuko da.

7. Jarduera zientifikoak eta prestakuntza arlokoak egiteko, irabazi asmoa duten erakundeek emandako kanpo finantzaketa jasotzen denean, komenigarria da laguntzaren izaera eta irismena argi eta garden adieraztea. Podologoek eta jardueraren antolatzaileek edukien independentzia eta parte hartzaileen askatasuna bermatuko dituzte.

8. Farmazia industriak babestutako ikerketetan edo azterketetan parte hartzen duen profesionalak industriarekin dituen loturen berri eman behar du, dagokion interes adierazpenaren bidez, dagokion tokian.

9. Osasun arloko profesionalak, aditu gisa, produktu jakin bati buruzko gomendioak ematen baditu komunikabide zientifikoetan nahiz komunikabide orokorretan, berariaz jakinarazi behar du osasun industriarekin duen lotura, halakorik dagoenean, dagokion interes adierazpenaren bitartez.

10. Podologiaren jardun klinikoa gutun, telefono, irrati, prentsa edo Internet bidezko kontsulten bitartez bakarrik egitea arau deontologikoen aurkakoa da. Jarduketak zuzena izateko, profesionalaren eta pazientearen arteko harremanak pertsonala eta zuzena izan



behar du nahitaez; pazienteari etikoki, objektibotasunez eta harentzako arriskurik gabe gomendatzeko, ondorengo artikuluan xedatuko dena alde batera utzi gabe.

## 19. artikulua.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea

---

1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen badira ere, lanbidearen Kode Deontologikoa, Kode Etikoa eta Jardunbide Egokiaren Kodea arautzen dituzten arau deontologikoak bete behar dira, baita informazioaren gizartea arautzen duten arauak ezartzen dituzten betebeharrak ere.

2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia era arduratsuan eta arretaz erabili behar da eta konfidentzialtasuna, intimitatea eta sekretu profesionala gordetzeko izan behar den arreta muturreraino eraman behar da.

3. Bereziki komunikazioetan, aplikazioetan, webguneetan eta bitarteko elektrikoek ematen dituzten zerbitzu profesionaletan honako hauek egin beharko ditu:

- a. Bere izenarekin identifikatu, eta, hala badagokio, zerbitzuaren titularra den lanbide sozietatearen izenarekin, adskripzio elkargoaren izenarekin eta elkarkide zenbakiarekin.
- b. Jakinarazpen pribatuak hartzaileak bakarrik jasotzen dituela ziurtatu.

4. Ez da onargarria podologiaren jardun klinikoa telekontsultaren bidez bakarrik egitea; hala ere, etikoki onargarria da profesionalen arteko bigarren iritzia ematen denean, presazkoak ez diren ohiko prozesuen berrikuspenak edo jarraipenak egiten direnean, edo paziente kronikoei arreta ematen zaienean, betiere elkarren arteko identifikazioa argia bada eta intimitatea bermatzen bada, baita pazientearentzako berehalako arrisku potentzial baten aurrean dauden premia larriko kasuak direnean ere.

5. Konfidentzialtasunari, segurtasunari eta sekretuari buruzko arauak Kode honetan ezarritako moduan aplikatuko zaizkio telekontsultari.

## 20. artikulua.- Podologiako perituak

---

1. Podologian aritzen direnek epaileen eta auzitegien deiari erantzun behar diote; Administrazioei lagunduko diete, beren eskumenekoak izanik, guztien onerako diren gaitetan.

2. Justiziarekin eta Administrazioarekin lankidetzan aritzeak ez du esan nahi pazientearen eskubideak urratu behar direnik. Podologiako perituak sekretu profesionala errespetatuko du, Kode honetan bertan zehaztutako salbuespenekin.

3. Lekuko gisa testigantza emateko deitzen duten osasun arloko profesionalak, izendapen judizialaren arabera, agertu egin behar du. Lekuko egintzan, podologo



izateagatik, ikusi edo entzun dituen eta kausarako garrantzitsuak diren gertaerak azalduko ditu. Sekretu profesionala ahal den arte gordeko du eta gai judiziala ebazteko behar-beharrezkoa dena bakarrik emango du ezagutzera. Auzi zibiletan ezin izango du eman podologo izateagatik sekretupean lortutako informazio pribilegiatua.

4. Osasunaren arloko profesional bakar batek ere ez du onartu beharko trebetasun podologikorik, baldin eta horretarako lanbide trebakuntzarik ez badu edo trebetasun hori ahozko epaiketan defendatzeko prest ez badago. Onartzera behartzen badute, kontzientzia eragozpenari heldu ahal izango dio.

5. Peritu kargua bateraezina da peritatutako pertsonari asistentzia eman dion profesional gisa jardun izanarekin edo pertsona horrekin profesionalaren iritzi askatasunean eragin dezaketen harremanak izatearekin edo eduki izanarekin.

6. Trebetasun podologikoak berariazko trebetasuna duen pertsonak egindako miaketa podologikoa behar badu, perituak honako hauek jakinaraziko ditu: bere identifikazio pertsonala eta profesionala, nork izendatu duen eta zer eginkizun eman dioten, nork eman dion eginkizuna eta zertarako, eta bere adierazpenak txostenean jaso daitezkeela eta publiko egin. Pazienteak ez badu miatzea nahi, perituak agindua eman dionari jakinaraziko dio.

7. Edozein pazienteren miaketa arautzen duten arau deontologikoak, haren intimitatea eta lotsa babesteko ahalik eta zorrotzenak izango dira; izan ere, peritua, bere egoera prozesala dela eta, gutxiagotasun egoeran dago perituaren aurrean.

8. Podologo perituak, bere jarduketan, pazientearen edo hirugarrenen bizitza edo osasuna arrisku larrian jartzen duen gertaeraren edo zirkunstantziaren bat aurkitzen badu, lehendabizi interesdunari jakinarazi beharko dio eta, batzuetan, dagokion agintaritzari.

### III. TITULUA. Harreman profesionalak

#### 21. artikulua.- Betebeharrak eta eskubideak profesionalen arteko harremanetan

---

Podologian aritzen direnek eskubide eta betebeharrak hauek dituzte:

1. Senidetasun profesionala errespetatzea:
  - 1.1. Senidetasuna ezinbesteko betebeharrak indibiduala da profesionalen artean eta hura sustatzea Elkargo Erakundearen konpromisoa da eta haren aurretik pazientearen eskubideek bakarrik dute lehentasuna.
  - 1.2. Senidetasunari dagokionez, betebeharrak bat da inoiz ez oztopatzea beste profesional batek pazienteari ematen dion arreta, larrialdietan edo pazienteak



libreki eskatzen duenean izan ezik; kasu horietan, adostu gabeko arreta podologiko partekatu baten ondorioz sor daitekeen kaltearen berri emango zaio pazienteari.

- 1.3. Bigarren iritzia beharrezkoa dela uste duenean, premia horren berri emango zaio pazienteari, eta egokientzat jotzen den kontsultariaren proposamena egingo zaio, askatasun osoz aukeratu ahal izateko egokientzat hartzen den pertsona. Azken horrek pazienteari asistentzia ematen jarraitzea onartzen duenean, pazientea aurretik tratatzen zuen profesionala aske geratuko da.
  - 1.4. Ez da senidetasunaren printzipioa urratzen profesionalak etikarekin eta podologiaren deontologiarekin zerikusirik ez duten jarduketak elkargoari jakinarazten bazaizkio, alde batera utzi gabe konfidentzialtasuna eta datuak babesteari buruzko arauak pazientearen eta profesionalaren segurtasuna bermatzeko.
  - 1.5. Profesionalen arteko ordezkapenei dagokienez, ordezkapenen jatorria edozein izanda ere, ordezkoa ez da inoiz aukera horretaz baliatuko ordeztu den profesionalaren pazienteak erakartzeko.
2. Profesionalen arteko elkarlana:
- 2.1. Dituzten ezagutzak eta abilezia teknikoak kolektiboaren zerbitzura jarri behar dituzte, hala nola laguntza eskatzen duen profesionalari laguntza ematea, pazienteari ahalik eta kalitate handieneko asistentzia bermatzeko helburu bakarrarekin.
  - 2.2. Podologia taldean egitea:
    - a. Helburu nagusiak pazienteari ematen zaion arretaren kalitatea hobetzea izan behar du, eta ezin du inoiz ekarri profesionalen arteko jarduketak gehiegizkoak izatea.
    - b. Taldea zuzentzen duen pertsonak ez du taldea menderatzeko rola hartu behar, jarduerak Etikaren eta Deontologiaren barruan egitea bultzatuko du eta ekarpen profesionalen aniztasuna eragingo du.
    - c. Talde-lanak ez du profesionala Etikaren eta Deontologiaren erantzukizunetik aske uzten.
3. Profesionalen arteko tratuari dagokionez:
- 3.1. Begirunez, errespetuz eta leialtasunez tratatu behar dira elkarren artean, egon daitekeen hierarkia harremana edozein izanda ere, eta iruzkinen, erasoen edo salaketa bidegabeen edo funsgabeen xede diren lanbideak defendatu behar dituzte.

3.2. Ez dute beren lankideen edo beste profesional batzuen jarduketara profesional eta pertsonalei buruzko iruzkinik, kritikarik eta adierazpen kaltegarriak egingo, eta are larriagoa izango da gaixoaren aurrean, senideen aurrean edo publizitatearekin egin bada, batez ere sare sozialetan, eta are gehiago argumentu oinarri sendorik gabe; horrelakorik eginez gero, zigortu daiteke.

3.3. Profesionalen kolektiboaren barruan sor daitezkeen desadostasunetan eta desakordioetan parte hartzeko betebeharra, desadostasun eta desakordio horiek zientifikoak, profesionalak, etikoak eta deontologiakoak diren alde batera utzita, ez dute inoiz polemika publikorik sortu behar eta era pribatuan konpondu behar dira, eta konpontzen ez badira, Elkargoari jakinarazi behar zaio berehala, garaiz eta behar bezala jarduteko aukera izan dezan guztien segurtasunarengatik.

4. Perituaren ebazpenak objektiboak eta egiazkoak izango dira.

## 22. artikulua.- Espainiako Podologoaren Elkargo Erakunde Nagusiaren eta profesionalen arteko harremanak.

---

1. Elkargoaren jardueretan parte hartzeko eskubidea eta betebeharra dago, bizitza korporatiboan lagunduz; horrez gain, dagozkion kargetan laguntzeko eskubidea eta betebeharra ere badago.

2. Elkargo Erakundearekin harremanak izateak betebeharrak hauek dakartza berekin:

2.1. Podologoaren Elkargo Profesionalen Kontseilu Nagusiaren eta lanbidea gauzatzen den autonomietako Elkargo edo Kontseiluen estatutuetan eta kode deontologikoetan ezarritakoa betetzea.

2.2. Gobernu organoak eta organo horiek osatzen dituzten kideak errespetatzea.

2.3. Ahalik eta arreta handienaz erantzutea komunikabideei eta Elkargo Erakundeak eskatuz gero komunikabideetan agertzea, haien izaera edozein izanda ere, eta ezarritako elkargo arauen arabera.

2.4. Elkargoari intrusismo ekintza ororen berri ematea, baita legez kontra gauzatzen diren kasuen berri ere, bai salatua elkargokide ez izateagatik, bai zigortuta edo desgaituta egoteagatik, eta, azkenik, arau-hauste deontologikoen berri ematea, nahiz eta kaltetua ez izan.

2.5. Elkargo Erakundearen logistika arloko langileen eta profesionalen artean tratatu zuzena eta arina izan behar da, tolerantzia eta bi aldeek arteko errespetuan funtsatuta, pertsonen balio etiko eta demokratikoak oinarri hartuta.

2.6. Lanbide helbide bakarra edo nagusia finkatuta daukan lekuari dagokion Elkargoan egoiliar gisa alta emanda dagoela egiaztatzea, beste Elkargo batean ez-egoiliar gisa atxikitzea eskatzen duenean.

2.7. Kide den elkargoari jakinaraztea egoera pertsonaletan izandako aldaketak, eta, bereziki, lanbide helbidean izandakoak.

3. Arau deontologikoak betetzeagatik kalte egiten zaien elkargokideak defendatuko ditu Elkargo Erakundeak.

4.- Prozesuetan sartuta dauden profesionalak intimitaterako eta konfidentziasunerako duten eskubidea bermatu behar du elkargo erakundeak, inplikazio maila, tipologia edo ebazpen fasea edozein izanda ere.

5.- Kode hori urratzen duten lanbide jokabideen aurrean, kasu bakoitzerako ezarrita dauden legezko arauetara dagokienaren arabera jokatu beharko du elkargo erakundeak.

6.- Elkargo Erakundeak Podologiaren irakaskuntzaren kalitatea zaindu behar du eta etikaren ezagutzen eta deontologiaren irakaskuntzak sustatu behar ditu.

### 23. artikulua.- Osasun arloko beste lanbide batzuekiko harremanak

---

1. Podologian aritzen direnek harreman onak izango dituzte osasunaren zerbitzura dauden gainerako profesionalekin. Errespetuz jokatu behar da eta haien iritzia kontuan izango dituzte, nahiz eta norberaren iritzia desberdinak izan, pazientearen arreta hobetzeko.
2. Zentroa osatzen duen taldeko kide bakoitzaren eskumenak eta erantzukizuna behar bezala mugatu behar da. Ez da etikoa norberaren zereginak eta erantzukizunak beste kide batzuen esku uztea.

### 24. artikulua.- Beste erakunde batzuekiko harremana

---

1. Lanbide jarduera besteren kontura egiten dutenek lan egiten duten erakundearen izen ona zaindu beharko dute, eta etika profesionalan eragina izan dezakeen akatsen bat izanez gero, dagokion elkargo profesionalari jakinarazi beharko diote.
2. Profesionalaren lanlekua den erakundeko edo zentroko arauak profesionalaren independentzia eta agintzeko askatasuna errespetatuko dituzte eta adieraziko dute profesionalak, bere eskumenaren eremuan, aginpide eraginkorra duela lankide eta laguntzaileengan.
3. Elkargoa da podologiako profesionalen artean gatazka etiko-deontologikoak

epaitzeko eskumena duen organo bakarra; debekatuta dago gatazkak epaitzeko eskudun gisa onartzen den kontratuko, estatuko edo arauzko klausula oro.

4. Podologian aritzen direnek:

4.1 Lanbide jarduna egokia izatea eragotz dezaketen hutsune etikoen berri emango diote zentroko zuzendaritzari, baita asistentziaren kalitatean izan ditzaketen eraginen berri ere, eta enpresari jakinaraziko diote garaiz eta behar bezala konpon ditzan. Enpresak hutsuneak konpontzen ez baditu, Elkargoari jakinaraziko zaio, dagokion moduan joka dezan.

4.2 Edozein podologia zentrotan laneko eta/edo merkataritzako kontratuaren bidez, eta antolamendu sistemaren bidez zentroko asistentzia baldintzak betetzera behartuta badaude, ez dute inola ere onartu beharko beren iritzi klinikoak zentro horretako merkataritzako irizpideek baldintzatzea. Profesionalen ustez, zentroak eskaintzen dituen tratamenduen kalitateak eska daitezkeen kalitate irizpideak betetzen ez baditu, inguruabar horren berri eman beharko diote Elkargo Profesionalari, horrek osasun agintaritzari jakinaraz diezaion.

5. Podologiako asistentzia zentro baten zuzendaritza kliniko edo gerentzia daraman profesionalak, nahiz eta zuzenean lan kliniko egin ez, honako hauek egin beharko ditu:

5.1 Kode deontologiko honetako aginduak bete.

5.2 Zentroak kalitatezko podologia asistentzia eskaintzen duela ziurtatu. Hori betetzeko, ezinbestekoa da behar den asistentzia profesionala izatea eta lan baldintza egokiak izatea, baita baliabide material egokiak izatea ere.

5.3 Pazientearen eta profesionalaren arteko harremana ona izan dadin eta biek segurtasuna izan dezaten lagundu, baita pazientearen intimitatea eta konfidentziasuna une oro mantendu ere.

5.4 Profesionalari erraztasunak eman eta haiek motibatu etengabeko prestakuntza eguneratu dezaten.

6. Podologian aritzen direnek kontzientzia eragozpenerako eskubidea dute, baita besteren kontura lan egingo duten instalazioen jabeek edo hierarkiako nagusiek ezarritako jardun kliniko uko egiteko eskubidea ere, betiere ezarritako jardun klinikoak praxi onaren edo pazienteen osasunaren interesen aurkakoak direla uste badute. Ez da onartzen kontzientzia eragozpen kolektiborik edo erakunde arlokorik, edo kontzientzia eragozpena onuragatik edo oportunitateagatik edota norberaren ezaugarriengatik (adina, arraza, sexua, bizi ohiturak, ideologia edo erlijioa) izatea. Larrialdi kasuetan izan ezik; kasu horietan kontzientzia eragozleak pertsona hori artatu egin beharko baitu, ekintza hori objektatutako ekintzarekin lotuta badago ere.

7. Lanbide jarduera zerbitzu publikoko erakunde batean egiten dutenek ezin dituzte beren karguak pazienteak jarduera pribatura erakartzeko erabili.

## IV. TITULUA. Irakaskuntza, ikerketa eta argitalpen profesionalak

### 25. artikulua.- Argitalpen profesionalak

---

1. Podologian aritzen direnek betebeharrak hauek dituzte:
  - 1.1. Dagokion Etika Batzordeak ikerketari buruz ezarritako legezko arauak bete direla egiaztatzea.
  - 1.2. Lehendabizi lanbidearekin zerikusia duten komunikabideei jakinaraztea egindako aurkikuntzak edo azterketa zientifikoetatik ateratako ondorioak, emaitzak edozein izanda ere.
2. Argitalpen zientifikoaren arloan, jarduketarako hauek falta deontologikoak dira:
  - 2.1. Eraginkortasuna oraindik zehaztu gabe duten prozedurak garaia baino lehen edo era sentsazionalistatik ezagutzera ematea, edo eraginkortasuna handizkatzea.
  - 2.2. Iritzia ematea aditua ez den gaiei buruz.
  - 2.3. Datuak faltsifikatzea edo asmatzea.
  - 2.4. Beste egile batzuek argitaratutakoa plagiitzea.
  - 2.5. Lana diseinatzen eta egiten funtsean lagundu ez duena egile gisa sartzea.
  - 2.6. Argitalpen errepikakorrak egitea.
  - 2.7. Produktu baten ezkutuko argitalpen engainagarria edo sustapena egitea, behar adinako euskarri zientifikorik izan gabe edo produktu horri buruzko nahikoa informazioa izan gabe.
  - 2.8. Argitaratu den lanaren finantzaketa iturri guztiak ez aipatzea eta laguntza pertsonalak ez aitortzea, baita edozein emaitza ez aipatzea ere.
3. Idatzizko, ahozko edo ikusizko argitalpen zientifikoetan ezin izango da pazienteak identifikatzea ahalbidetzen duen daturik erabili. Identifikatzeko aukera hori alde batera ezin denean, pazientearen edo haren legezko ordezkariaren baimen esplizitua eduki beharko da.
4. Ezin izango da lankide bakar baten izena erabili bere baimenik gabe podologiarekin lotutako tratamenduen, ikastaroen, masterren edota edozein

jardueraren publizitatean.

## 26. artikulua.- Irakaskuntza Podologikoa

---

1. Podologia ikasten dutenek Kode honetako arau etikoak ezagutu eta bete behar dituzte, eta irakasleek errespetuz eta duintasunez tratatu behar dituzte.
2. Irakasleek, jardute podologikoan, edozein egoera aprobetxatu beharko dute Kode honen balio etikoak eta ezagutza ikasleei irakasteko. Irakasleak jakin behar du bere eredugarritasunak prestakuntza balioa duela eta ekintza podologiko orok osagai etiko bat duela.
3. Ikasten ari diren podologoek prestakuntzaldiari dagozkion zereginak egin ahal izango dituzte, betiere zeregin horiek irakasleen gainbegiradapean egiten badituzte.
4. Irakaskuntza klinikoaren arduradunek zainduko dute irakatsi eta ikasteko prozesuak pazienteei ahalik eta eragozpen gutxien sortuz egiten direla.
5. Baimenduta dago irakaskuntzan erabiltzeko edo hedapen zientifikoa egiteko fotografiatu edo filmatu diren kasuak aurkeztea; horretarako, baimen esplizitua beharko da eta anonimata gorde beharko da.
6. Podologiako profesionalek ez dute irakasle gisa parte hartuko, ez maila akademikoan ez praktikoan, irakaskuntza ez arautuko jardueretan, baldin eta, "Podologia" hitza erabiltzeagatik eta irakaskuntza horien edukian material gisa duten harremanarengatik, pentsa badaiteke (oker) irakaskuntza horiek Podologiako titulua lortzera edo podologian aritzeko gaitzera bideratuta daudela, eta, ondorioz, biztanleak nahasteko arriskua badago.
7. Pazienteak edo podologiarekin zerikusirik ez duten langileak badaude, saihestu egin behar da ikaslea zuzentzea podologiaren jarduteari dagokionez.

## V. TITULUA. Kode Deontologikoa eta Elkargo Erakundea

### 27. artikulua.- Kode Deontologikoa eta Elkargo Erakundea

---

1. Elkargoaren helburu nagusietako bat da elkargoko kide diren pertsonen lanbide jarduera antolatzea, etika eta duintasun profesionalak zaintzea, deontologia profesionala sustatzea eta garatzea, eta, lehentasunez, kode honetako aginduak ezagutaraztea eta betetzen direla zaintzea.
2. Elkargoetako, Kontseilu Autonomikoetako eta Kontseilu Nagusiko Zuzendaritza Batzordeetan zuzendaritza karguak betetzen dituzten pertsonak elkargoko kide



- guztien batasun deontologikoari eutsi behar diote nahitaez, eta hartzen dituzten erabakiak estatutuen arauetara eta arau deontologikoetara egokitu behar dituzte. Era berean, eskura duten informazioaren konfidentzialtasuna gorde beharko dute, eta informazio hori ezin izango dute kanpoko foroetara eraman. Eramaten badute, zigorra ezarri ahal izango da.
3. Kontseilu Nagusiak egunean eduki behar du Kode honetako edukia, eta egoki denean, berrikusi, egokitu eta eguneratu egingo du.
  4. Deontologiaren Batzorde Nagusiaren funtsezko betebeharrak bat Kode hau eguneratzeko behar diren ekimenei ekitea izango da.
  5. Kontseilu Nagusiak etika profesionalaren printzipioak ezagutzea eta lanbidea gauzatzean aplikatzea sustatu behar du elkargokide guztien artean.
  6. Zuzendaritza karguak betetzen dituzten elkargokideak behartuta daude beren jokabidea eta erabakiak estatutuen arauetara eta arau deontologikoetara egokitzera, beren jarduketa guztietan eredu izatera, eta Elkargo Erakundearen, lanbidearen eta kolektibo osoaren interes komuna sustatzera.
  7. Zuzendarien jokabideak bat etorri behar du betetzen duten eginkizunaren helburuekin; beraz, beste edozein onuraren (partikularra edo taldekoa) mende egon behar du. Zuzendarien portaerak ez du inoiz botere mesede absolutua ekarriko.
  8. Elkargo Erakundeetan erantzukizuneko karguak betetzen dituztenek ezin izango dute kargu hori beren onurarako erabili, ezta beren elkargoaren onurarako ere, eta ezin izango dute beren jardura pribatuaren publizitatea egin.

## Azken xedapenak

---

Espainiako Podologoaren Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak onartutako kode deontologikoak arau izaera du eta loteslea da Kontseilu hori osatzen duten elkargoetako bakoitzaren lurralde eremuan.

1. Podologian estatuko legeen babesean aritzen direnak ezin izango dira deontologikoki zigortu.
2. Deontologiaren Batzorde Nagusiaren funtsezko betebeharrak bat kode hau eguneratzeko behar diren ekimenei ekitea izango da.
3. Kontseilu Autonomikoen eta Elkargo Probintzialesk gara ditzaketen kodeak kontuan hartu gabe, kode hau elkargokide guztiei aplikatuko zaie, bakoitzaren ezaugarri berezietara egokituta eta Espainiako Podologoaren Kontseilu Nagusiaren kode deontologikoan ezarritakoaren arabera.
4. Kode hau bakartzat hartzea proposatzen da, interes gatazkak saihesteko.

Hori guztia unean-unean indarrean dagoen legerian xedatutakoa alde batera utzi gabe.

## Xedapen indargabetzaile bakarra

---

Azken kode deontologikoa 2014. urtean onartu zuen Podologoien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren Batzar Nagusiak, eta indarrean egongo da, indarreko legeriaren arabera, kode berria onartu arte.

## Azken xedapena

---

Kode Etiko Deontologiko hau argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.